

ZUZENBIDE FAKULTATEKO JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOAREN URTEKO TXOSTENA, NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ENTITATE GISA

1. Txostenaren jatorria

Zuzenbide Fakultatearen JSKJ UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2016ko ekainaren 2an hartutako Akordioaren bidez sortu zen, nortasun juridikorik gabeko entitate gisa (EHAA, 2016ko ekainaren 22a). Hori dela eta, UPV/EHUk sortu eta nortasun juridikorik ez duten egitura eta erakundeen oinarritzko arautegiak zuzenduko du JSKJ; arautegi hori, bestalde, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak onartu zuen, 2012ko maiatzaren 16ko Akordioaren bidez (EHAA, 2012ko ekainaren 18a).

Arautegi horren 5.4 artikulua honela dio: “Kasuan kasuko egitura edo erakundearen gobernu organoek jardueren plana eta oroitidazkia osatu beharko dituzte urteko, hala balegokio, ekonomi txostena bertan dela, arloko eskumena duen errektore taldeko kideari igorriko zaiona, bai eta, beharko balitz, jardunari dagokion campuseko errektoreordetzari ere. Dokumentuon elaborazio eta igorpena zuzendaritza edo koordinazioa bere gain hartuko dituenaren eginkizuna izango da”. Aipatutako arautegiaren arabera, beraz, JSKJren zuzendari gisa (UPV/EHUko errektorearen 2016ko ekainaren 29ko Erabakiaren bidez izendatua), niri dagokit entitatearen urteko txostena egin, eta errektoreordetza eskudunari igortzea; hots, gaur-gaurkoz, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeari.

Halere, JSKJk funtzionamendurako arautegi propioa ere badu. Haren 8. artikuluan, zuzendariaren eskumen eta eginkizun gisa ageri da JSKJren urteko txostena eta txosten ekonomikoa *egitea*; bestalde, 13. artikulua ezartzen duenez, Zuzendaritza Kontseiluaren eskumena izango da horiek *onartzea*. Aipatutako arautegiek ezarritakoarekin bat etorrita, beraz, JSKJren Zuzendaritza Kontseiluak 2017ko urtarrilaren 18ko bileran onartu zituen dokumentuak, eta bilera horren akta eransten zaie urteko txostenari eta txosten ekonomikolari.

2. Txostena

JSKJren urteko txostenean aipatu behar da, lehenik eta behin, ekainean entitatea sortu eta haren zuzendaria izendatu zutela. Hori dela eta, “urtekoa” deitu arren, txostenean urte erdiko jarduerak baino ez dira jasotzen (egiatan, **irailetik abendura bitartekoak**).

Aldi horretan, antolakuntza mailan egindako ekitaldi nagusia Zuzendaritza Kontseilua eratzeke bilera izan zen, urriaren 13an, eta haren akta txosten honi erantsi zaio. Akta horretan ikus daitekeenez, zuzendari laguntzailea eta idazkaria izendatzeaz gainera (Arautegiaren 8. artikulua h letran jasotako eskumena), eraketa bilera hartan, klinikaren jardura nagusiak zehaztu ziren ikasturte osorako, eta ordura arteko urratsei buruzko informazioa eman zen, tartean, hauek nabarmenduta: 1) Klinikaren babespean GRAL, MAL eta praktikak egingo dituzten ikasleak hautatzeko prozesua; 2) lankidetzaren harremanak Bordeleko

Unibertsitatearen Klinika Juridikoarekin; 3) harremanak finkatzea klinikako ikasleei kasuak emango dizkieten gizarte eragileekin eta erakundeekin; 4) beste erakunde batzuekin izandako harremanak klinikaren lana ezagutzera emateko, etorkizunerako lankidetzak akordioak bideratzeko eta finantzaketa bilatzeko.

Eraketa bilera hartan emandako jardun ildoen esparruan, **2016ko abenduaren 31 arte honako jarduera hauek egin dira:**

Hiru prestakuntza saio ikasleekin, Zuzendaritza Kontseiluko kideekin eta klinikarekin lankidetzan diharduten gainerako irakasleekin. Saioak Ikasleen, Berrikuntzaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak finantzatu ditu.

- Lehena urriaren 19an egin zen, eta metodologia eta pedagogia klinikoaren esperientzia zehatzak aztertu ziren, Valentzia eta Alcalá Henareseko unibertsitateetako ikasle eta irakasleekin batera.
- Bigarrena azaroaren 23an egin zen, eta kasuak aurkeztu zituzten elkarteek (Eraberean sarea: SOS Arrazakeria, Biltzen), erakunde publikoek (Emakunde, Arartekoa) eta abokatuek.
- Hirugarrena abenduaren 14an egin zen, Emakunderen Berdintasunerako Foroaren barruan, eta klinikaren jardueretan emakumeen aurkako bazterkeria aztertu zen.

Lan jardunaldia Bordeleko Unibertsitatearen Klinika Juridikoan. JSKJko ikasleek, zuzendariak eta Zuzendaritza Kontseiluko zenbait kidek parte hartu zuten, irakaskuntza esperientziak eta metodologiak trukatzeko jardunaldian (azaroak 17). UPV/EHUren eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko hitzarmenaren esparruan egin, eta EBIS laguntzen funtsaren bidez finantzatu zen.

Workshop bat antolatzea Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeetan (Oñatin), 2017ko maiatzean. Justizia sozialari lotutako metodologia klinikoak landuko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun eta Bizikidetzak eta Giza Baliabideen zuzendaritzek interesa agertu, eta finantzaketan lagunduko dute.

Zuzendariaren parte hartzea, Espainiako Unibertsitateen Klinika Juridikoen 5. Topaketan eta ENCLERen (European Network for Clinical Legal Education) IV. Kongresuan. Valentzian egin ziren urriaren 26an eta 27-28an, hurrenez hurren.

JSKJren ikasleak hautatzea, GRAL/MAL egiteko kasuak banatzea, eta tutoretzez arduratuko diren irakasleak esleitzea.

Klinikaren webgunea diseinatzea (Zuzenbide Fakultateko webaren barruan) eta hura maiztasun batez eguneratzea.

3. Txosten ekonomikoa

Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren diru laguntza

Jarduera –I Pedagogia Klinikoa 16/10/19

Lekua: Zuzenbide Fakultatea, Donostia

Kontzeptua: Bidaiak

Valentziako Unibertsitateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa	Valentzia- Bilbo	278,85
Alcalako Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko Lege Klinika	Madril- Donostia	137,06
Ostatua:		
Gau bat hotelean lagun batentzat Barceló Nerviónen, gosaria barne		75,00
Hizlarien ordainsaria		
Bi hizlariri 200 euro gordin ordaintzea		400,00
Beste gastu batzuk		
(Bazkaria 85,25 €, taxia 338,80, txartelak 78,10 + 20 €)		522,15
		1413,06€
II. Jarduera- Kasuak proposatzea eta hautatzea 2016/11/23		
Kontzeptua: Bidaia eta autobidea		90,04
2 hitzaldi		400,00
Bazkaria		65,00
		555,04€
III. jarduera- Emakumeen aurkako bazterkeria JSKJren jardueretan (2016/12/14)		
Hitzaldi bat		170,00
Kontzeptua: Bidaia eta autobidea (hizlari bat)		90,04
Bazkaria		53,00
		313,04€
Michelena (klinikaren gutun azalak)		364,21
Manpel (bulegoko materiala)		349,18
		2.994,53€
Gastua, guztira		

EBIS (EUSKAMPUS- Bordele Uni.) proiektuaren diru laguntza

**Jardunaldia, 2016ko ekaina
(Donostia)**

Hizlaria	Bidaia gastuen likidazioa	90,04
Hizlaria	VIAJES ECUADOR	169,4
Hizlaria	VIAJES ECUADOR	169,4
Bazkaria	LUKAS jatetxea 191,80 + 99	290,8
		719,64

Jardunaldia, 2016ko azaroa (Bordele)

Vallina mikrobusa aza. 16-17 1166

Gastua, guztira 1.885,64€